



BAIGORRIKO HERRIA

COMMUNE DE  
SAINT ETIENNE DE BAIGORRY

# 2021eko urriaren 8ko herriko kontseiluaren bilkuraren bilduma

**Hautetsiei igorri gutunaren deialdia :** 2021eko urriaren 1a

Usaiko herriko kontseiluko hilabeteko bilkura, Jean-Michel COSCARAT auzapez jaunaren lehendakaritzapean

**Herriko kontseilu kopurua : 15**

Hor ziren (14) : Jean-Michel Coscarat, Annie Juantorena, Bernadette Mousquès, Marie-Agnès Haristoy, Maddalen Dupuy, Isabelle Arangoits, Hélène Deguiraud, Antton Curutcharry, Daniel Ithurburua, Betti Bidart, Betti Olçomendy, Jean-Paul Bibes

Barkatua eta poderea emana : Sébastien Clauzel-ek Maddalen Dupuy-ri.

Bilkuraren idazkaria : Jean-Paul Bibes  
Cécile Larue, idazkari nagusiaren laguntzarekin.

## Mintzagaiak :

N° ordre	Mintzagaiak	Bozka
0	<b>2021eko agorrilaren 27ko kontseiluko bilkuraren bildumaren onarpena</b>	Aho batez onartua
1	<b>« Euskara » xartaren onarpena</b>  Hizkuntza gutituen eta lurralde hizkuntzen Europako xartari oinarritua den euskara xarta, hizkuntzaren garapenarako.	Aho batez onartua
2	<b>Jantegien salneurri sozialaren plantan emaita</b> Jantegian finkatua den bazkari-prezioa, zailtasunetan emaiten ahal ditu beharretan diren familia batzu. Bestalde, haur batzuk, egunean, apairu ekilibratu bat ez dute ere ez. Orain arte herriak 0,5 € dirulaguntza emaiten du haur bakoitx, bazkari bakoitx, familien egoera kondutan hartu gabe. Gaurregungo helburua da dirulaguntza hori hobekiago banatzea, zailtasunetan diren familiei laguntza ekarriz. ⇒ Familien CAF zatidura ukan eta, azterketa baten egitea erabaki da, dirulaguntza hobekiago egokitzeko.	Erabakia atzeratua

<b>3</b>	<p><b>Herri elkargoaren CLECT batzordearen txostenaren onarpena</b></p> <p>CLECT batzordea (<i>commission locale de d'évaluation des charges transférées</i>) 2021eko buruilaren 15ean bildu da eta ebaluaketa txosten bat egin du, karguen kondu batetik bestera pasatzeari buruz. Herri guzietan ikerketa lan hori onartu behar dute.</p>	Aho batez onartua
<b>4</b>	<p><b>Herriko auzapezari baimena ematea EPFL-ek Baigorriko herriari saltzen duen lur zati baten erosteko (Olçomendy familiaren lurra, Borzirieta auzoan)</b></p>	Aho batez onartua
<b>5</b>	<p><b>Aurrekontuaren kargu batzuen kondu batetik bestera pasatzea</b></p> <p>Jatorrizko aurrekontuaren artikulua batzuen aldatzea.</p>	Aho batez onartua
<b>6</b>	<p><b>Baigorri/Tafalla herri bidezkatzeari buruzko batzorde eta ordezkarien izendatzea</b></p> <p>Auzapez jaunak orroitarazten du bidezkatze horren helburua eta historia. Duela berrogei urtetik hunara bi herrien arteko lotura azkarrak direla eta, Nafarroaren egunari buruz Tafallatarren errezebitzea. Ildo hortatik, bidezkatze bat ofizialki plantan emana izan da, eta batzorde bat muntatu.</p> <p>Herriko ordezkariak : Maddalen Dupuy, Isabelle Arangoits, Betti Bidart</p>	Aho batez onartua
<b>7</b>	<p><b>Herriko eremuan izanen den « haragi banatzaile » makinarentzat urteko diru prezioaren finkatzea</b></p> <p>Xarkutaria banatuko duen makina, « Herriarena » trinketearen ondoan plantan emana izanen da. Herriari zor ukanen duena enpresak : bere urteko irabaziaren %-7a, urte guziz berrikusiko dena.</p>	Aho batez onartua

Galdera orotarik.

-